



Martxoak 8

EGUNEZ EGUN



#Egunezegun zalantzan jarri estereotipoak, salatu indarkeriak, berdintasunean bizi, egunez egun birsortu mundua , egun guztiak #martxoak8

MARTXOK 8 EGUNEZ EGUN

Orain arte egindakoa asko bada ere, berdintasuna guztiz errealitatea bihurtzeko asko falta da; horixe gogoratzeko, munduan, egun aldarrikatzaile bat dugu: **Martxoak 8a**.

Ikastetxeetan ere, egun aldarrikatzailea izatea nahi dugu: gure ikasleek testuinguru guztietan desberdintasuna ikas dezaketen moduan, aukera izan behar dute berdintasuna eta berdintasunean ikasteko.

Asmo honekin, ikaste testuinguru horietatik aurton lan egiteko bat aukeratu dugu, ikus-entzunezkoa, eta ikusentzunezko mezuen gaineko ekintza batzuk garatzea proposatzen dizuegu.

Baita azpimarratu nahi genuke **Martxoaren 8** inguruko egunetan lan egiteaz gain, ikasturtean zehar ere aintzakotzat hartzen dugula beste iragarkiak, abestiak, filmeak... kritikoki aztertzea eta erantzun aktiboak sustatzea.

HELBURUAK

- Ikasleek ikusentzuteko mezuetan (publizitatea, kanta, filmak) sexismoa identifikatzeko gaitasun kritikoa garatzea.
- Publizitateak proiektatzen dituen genero estereotipo batzuk identifikatzeko gakoak ematea.
- Komunikabideek bultzatzen duten sexismoaren aurrean berdintasuna eraikitzeko eman daitezken erantzun ereduak eskaintzea.
- Euren proiektuak defendatu eta defendatzen dituzten emakumeen bizitzak ikustaraztea eta baloretan ipintzea.

JARDUERAK

I. Haur eta Lehen Hezkuntza

- 1- Publizitatea aztertu.
- 2- Publizitateko sexismoari aurre egin.
- 3- Kanta baten mezuak aztertu.
- 4- Bideo forum-a.

II. Bigarren Hezkuntza

- 1- Publizitatea aztertu.
- 2- Publizitateko sexismoari aurre egin:
Plastika, Euskara/Lengua ,Teknologia/Informatika.
- 3- Kanta baten analisisa: Ingelesa, Euskara, Gaztelania.
- 5- Filme baten analisisa.

III. Familiak

- 1- Ikastetxeko proposamena eta egindako lanak helarazi
- 2- Formazio saioa
- 3- Herriko udaletxeetako proposamenak Hezkuntza Komunitateari helarazi

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

- 1- Publizitatea aztertu.
- 2- Publizitateko sexismoari aurre egin.
- 3- Kanta baten mezuak aztertu.
- 4- Bideo foruma egin.

1- Publizitatea aztertu

Lehen hezkuntzakoekin Cola Caok egindako iragarkiak erabil daitezke publizitateak erabiltzen dituen genero estereotipoak aztertzeko.

Adinaren arabera, txikiekin bereziki, Cola Caok iragarkiarekin planteatzen den lana, bideo batzuen bidez egin daiteke.

LEHEN HEZKUNTZA- COLA CAO

Saioaren garapena

1.1 Irakasleak saioa aurkeztu

Irakasleak saioari sarrera emateko Martxoak 8a ospatzeko beharra oraindik ere arrazoi asko daudela komentatu du, eta, adibide moduan, publizitatean ikus eta entzun ditzaketen mezuak aztertu dituztela, horren inguruan hausnarketa egiteko. (Aurreko urtetan landu ez den taldeetan, Martxoak 8a ospatzeko zergatia azalduko da)

Irakasleak hipotesi hau planteatuko die ikasleei: *publizitateak askotan genero-estereotipoak irudikatzen ditu neskeei eta mutilei mundu propioak lotuz*. (esaldia moldatu beharko da adinaren arabera). Hipotesi hau adierazteko, adibide bat landuko dute.

Lanarekin hasi baino lehen, umeei gustuko dituzten iragarkiei buruz hitz egin daiteke, zeintzuk, zergatik ... eta gero zuzenean Cola Caok egindako iragarkiak ikusiko dituzte.

Iragarkiak hemen aurki daitezke:

NIÑAS: EL CALCIO <https://www.youtube.com/watch?v=jEXi0UJEIYA>

NIÑOS: EL HIERRO <http://colacaoypublicidad.blogspot.com.es/2008/06/primer-anuncio-televisivo-1962.html>

1.2- Banaka

Iragarkia aztertzeko gidoiaren lehen zatia banatuko zaie eta isil-isilik beteko dute.

1.3- Talde lana

Taldetan antolatuta gidoiaren bigarren zatian planteatzen diren galderari erantzuten saiatuko dira

1.4- Talde handian

Irakasleak, ikasleak esan ahala, talde bakoitzean egindako ekarpenak jasoko ditu (ordenagailuan) eta beharrezkoa izango balitz, agertu ez diren aspektu batzuk komentatuko ditu.

1.5 -Etxerako proposamena

Hurrengo saiorako, behaketa bat egitea proposatutako zaie. Adibidez:

Ume bakoitzak, adinaren arabera, nahi duen produktua behatuko du (jostailuak, garbiketako produktuak, makilaitzekoak, konponketak...) eta aukeratutako produktuaren publizitatean zerbait sexista ikusi ondoren, apuntatuko du. Komenigarria da adibideak jartzea eta behaketa egiteko bi aukera eman:

- Tebistako iragarkietan aztertu
- Etxetik hurbil duten supermerkatu batean produktuen bilgarrletan aztertu

Azkenik, hurrengo eguneko saioa aurkezteko, irakasleak beste hipotesi bat luzatuko die ikasleei: "horrelako bereizkeriaren kontra egiten diren ekintzak eraginkorrak dira". Saioa amaitu daiteke Cola Caok 2012an egindako iragarkia ikusten.

Oharrak

- Proposatzen dugun gidoia mailaren eta adinaren arabera egokitzea komenigarria da.
- Txikiekin, lan taldean egin beharrean, denon artean egin dezakete gogoeta, irakaslearen laguntzarekin.

Banaka egiteko gidoia

I. ¿Nor ateratzen da iragarki bakoitzean? * Neska * Mutila

Spot bietan Cola Cao potetik ateratzen da animala bat, minerala eta biziduna

Zein da pertsonaiaren sexua?, Nori hitz egiten dio?

Animala biziduna deskribatu:

- Nola hitz egiten du: astiro, leunki, oihuka, azkar ...
- Nola mugitzen da: zakarki, zirt edo zart, astiro, azkar, leunki...

II. Spot bietan Cola Cao potetik ateratzen da animala bat, minerala eta biziduna.

Cola Cao neskako-iragarkian zein minerala agertzen da? eta Cola Cao mutiko-iragarkian?.

Zein da mineral bakoitzaren funtzioa, zeintzuk dira bakoitzaren onurak?.

Taldetan egiteko lan gidoia

III. Cola Cao iragarki biak alderatu.

- Zergatik uste duzu Coca Cola enpresak bi iragarki ezberdin hauek egin zituen?.
- Produktu bera iragartzen bada, zure ustez, zergatik aldatzen da iragarkia neskak edo mutilak agertzen direnean?.

Pentsa ezazue nolako izango izan behar zen bai neskentzako bai mutilentzako iragarki bat.

HAUR HEZKUNTZA: BIDEO LABURRAK

Saioaren garapena

Lanarekin hasi baino lehen, umeei gustuko dituzten iragarkiei buruz hitz egin daiteke, zeintzuk, zergatik ... Lehen hezkuntzan proposatzen den moduan. "Batuetan, gauza batzuk, arropak, jostailuak ... aukeratzen ditugu iragarki batuetan edo katalogo batuetan ikusi ditugulako". Honetaz hitz egin ondoren, umeei esango diegu iragarki batzuk ikusiko dituztela eta ondoren horietaz hitz egingo dutela.

Helburua da publizitatea aztertzea eta konturatzea batuetan ezer esan gabe neskentzat edo mutilentzat direla pentsarazten dietela iragarkiek.

Iragarki ez sexista batzuk aukeratuko ditugu umeei ikusteko, adibidez [Goldie Box](#) edo Toy Planet egindako gabonetako katalogoa.

Bideoak ikusi eta gero, esaldi honen inguruan gogoeta bat bultzatu umeei:

Bai neskek, bai mutilek jolas dezakete jostailu horiekin, orduan zergatik batuetan azaltzen dira neskak soilik eta beste batuetan mutilak soilik? Zergatik ez dira agertzen biak iragarkietan?

Denbora emango diegu euren iritziak, pentsamenduak, sentimenduak adierazteko, euren eritziak argudioatzeko. Gogoratu behar da publizitateaz hitz egiten ari garela, ez jostailuez.

Ondoren, adinaren arabera, iragarkian ikusi dituzten produktu horiekin publizitate iragarkia sortzea proposatuko zaie. Horretarako antzerki txiki bat egin dezakete, baina orain gelako neskatok eta mutikok parte hartuz iragarkian. Antzerkia graba daiteke eta gero elkarrekin ikusi.

Irakasleentzako material osagarria

- Coca-Cola Iragarkien azterketa bat hemen: "ANÁLISIS COMPARATIVO: COLA CAO NIÑAS VS COLA CAO NIÑOS".
<http://colacaoypublicidad.blogspot.com.es/2008/06/primer-anuncio-televisivo-1962.htm>
- Beste iragarki batzuen analisia egiteko edo bestelako ekintza batzuk egiteko:

Maletín de coeducación para el profesorado:

<http://www.fundacionmujeres.es/maletincoeducacion/pdf/CUAD1vert.pdf>

- *Fitxa 1: Analizando con gafas de género la publicidad (dekalogo eta eredu orokorra);*
 - *Fitxa 11 (estereotipoak lanbideei buruz).*
- Telebistan emandako saioa publizitateari buruz

<http://www.eitb.eus/eu/telebista/proqramak/airean/bideoak/osoq/1513514/bideoak-iragarki-sexistak-eta-sexismoa-publizitatean>

https://www.youtube.com/watch?v=t0_TOrUs8Gc

2- Publizitateko sexismoari aurre egin

Protesta ekintza bat sortzea proposatuko zaie ikasleei. Iragarki sexista bat aukeratu eta ikusi ondoren kexa ereduak sortu: gutunak, emailak, ...

Saioaren garapena

2.1- Irakasleak ekintza bat jarriko du sexismoari aurre egiteko eredu moduan.

Aurreko saioaren konklusioetatik abiatuz, geure ekintzen bidez lortu daitekeena erakusteko, eta, kasu honetan, publizitate sexistaren kontra joateko dauzkagun aukerak eta bideak erakusteko asmoarekin, arrakasta lortu duten ekintza edo kanpaina ezberdinak azalduko daitezke.

Adibideak:


Web helbide honetan azaltzen dira **lehen eta bigarren ziklorako adibide interesgarriak**.
Charlotte LEGOren kontra lehen ziklorako eta *Maggie eta super-heroiak 2* ziklorako:

<https://tenteralia.wordpress.com/2014/11/26/el-sindicato-de-las-ninas-furiosas/>:

Charlotte LEGOren kontra

Charlotek, 7 urteko neska, Legora idatzi zion karta bat. Gizonezko panpinek mozorroen artean igeri egiten dute eta bestelako abenturak ere izaten dituzte. Emakumezkoak, aldiz, etxean gelditzen dira edo erosketetan azaltzen dira, besterik ez.

Guraso askok eta feminista taldeek egindako presioaren ondorioz, #liberateLEGOs hashtag-en bidez LEGOk jostailu berri bat atera du.



Dear Lego company,
My name is Charlotte. I am 7 years old and I love legos but I don't like that there are more lego boy people and barely any lego girls. today I went to a store and saw legos in two sections The pink and the blue. All the girls did was sit at home, go ride a bike and sleep, and they had no jobs but the boys went on adventures, worked, saved people, and had jobs, even and let them go on adventures and have fun. ok!!
from Charlotte
Charlotte Benjamin

“Lego Neska gehiago egitea nahi dut eta abenturak bizitzen dituztenak eta ondo pasatzen dutenak OK?”

Maggie eta super-heroiak

Maggiren protesta: Hauxe txarto dago, super-heroiak edonori gusta dakieke

Fun gifts for boys



9.500 retweet eta gero Maggiren aurpegi adierazgarri hau ikusi ondoren, entpresak barkamena eskatu du eta bilgarri hori erretiratu egin du.

Zoriontzeko ereduak ere egin daitezke publizitate ez sexista egiten duten enpresei.

Publizitate sexista egiten ez duen iragarki edo jostailu baten bilgarri bat aukera dezakete eta dagokion entpresari zoriontzeko karta bat bidali. Adibide moduan Toy planet eta Godi Box egiten duten publizitatea ikus daiteke gelan.

- Toy Planet kateak arrakasta lortzen ari da bere katalogoarekin
- *Haiek (neskak) gehiago merezi* leloarekin, [Goldie Box](#) enpresak egindako kanpaina.

2.2- Ikasleek

Adibideak ikusi ondoren, ikasleek euren behaketan aurkitutakoa edo telebistan ikusitakoa azalduko dute.

2.3- Iragarkia eta ekintza adostu eta egin

Denon artean erabakiko dute ze ekintza mota egingo duten (gutuna, email, galdetegia...), zertaz, nora edo nori bidali, bat baino gehiago izan daitezke. Behin aukeratuta, taldeka prestatuko dute.

2.4- Hormirudiak

Talde batek analizatutako guztiarekin (etxean) hormirudia egin dezake txoko morean jartzeko. Bertan, egindako protesta ekintza ere jar daiteke.

3 zikloa. Bigarren Hezkuntzarako proposamena egokia izan daiteke, begira batzordeak proposatzen duen galdetegia erabiliz.

Haur Hezkuntza

Saioari sarrera emateko, irakasleak aurrean aipatutako kanpainak kontatu ahal die umeei, umeei egin dutena deskribatu, egindakoarekin lortu dutena azpimarratu eta euren iritziak eskatu.

Ondoren, haiek ere kanpaina bat egitea proposatuko die: jostailu baten iragarkia sortzea ikastetxeko txoko moretan jartzeko. Horretarako hormirudia edo collage bat egingo dute txokotan. Irakasleak gelara eramango ditu jostailuen katalogo ezberdinak, aldizkariak... (baita irudiak eman eta argazki oina idatz)

3-Kanta baten inguruko lana

Kanta baten inguruan lip dub, cup cap eta antzeko lanak ere egin daitezke, gelaka edo eskola osoan.

Adibidez "When I'm Gone". Anna Kendrick.

Dimako eskolak egindako cup song erabili daiteke kanta honen inguruko tertulia egiteko <https://www.youtube.com/watch?v=i6caesbcBmg>

4-Bideo forum-a

Eredu ez estereotipatuak eta positiboak azaltzen diren bideo bat (marrazki bizidunak, filmak, laburmetraiak, pailasoen saioak, antzerkia grabatuak...) aukeratu, ikusi eta umeein komentarioak sortarazi.

Adibidez,

HHn: Super Lola euskaraz

https://www.youtube.com/watch?v=Wmh5d_XMSmY

LHn: Muslim Women Making Waves And Breaking Stereotypes:

<https://www.youtube.com/watch?v=-Jnqc9-80Mg&spfreload=10>

BIGARREN HEZKUNTZA

1-Publizitatea aztertu.

2-Publizitateko sexismoari aurre egin: Plastika, Euskara/Lengua,Teknologia-Informatika.

3-Kanta baten azterketa : Ingelesa, Euskara, Gaztelania.

4 -Filme baten analisisa.

1- Publizitatea aztertu

Tutoretza saioa. Saioa martxoaren lehen astean egitea proposatzen da. (Hau egin baino lehen Curriculumean Publizitatea gaia landu daiteke otsailean zehar)

Saioaren aurkezpena

Tutoretza saioari sarrera emateko ikasleekin hitz egin daiteke gustuko duten iragarkiei buruz, ... eta galdera hau planteatu: *Publizitateak sexismoaren transmizioan eragina badu?*

Galderari erantzuteko iragarki batzuk aztertzea planteatuko zaie ikasleei. Lana hasi aurretik, web helbide honetan adibide batzuk ikusiko dituzte: bideo honetan Saarah Zelinski, Kayla Hatzel eta Dylan Lambiraine ikasle kanadarrek, gizon eta emakumeen gorputz zein rola iragarkietan nola islatzen diren azaltzen dute. (euskaraz)

<http://www.argia.eus/multimedia/bideoa/sexismoairagarkietan?ids=multimedia/bideoa/sexismoa-iragarkietan>.

Talde lana

Gela bakoitzean lau edo bost iragarki aztertuko dira, ikasleak taldetan antolatuta. Honetarako adibide batzuk eskeintzen dira eta horiek aztertzeko gidoi bat ere. Gidoia egoki daiteke dagokion mailari.

Talde handia

Lana egin ondoren, talde bakoitzak gelakideen aurrean aurkeztuko du.

Talde bakoitzarekin prozedura hau jarraituko da: Iragarkia ikusi, taldearen konklusioak partekatu eta konklusio horien inguruko eztabaida egin, beharrezkoa ikusten denean. Irakasleak, adosten diren ideiak jasoko ditu ordenagailuan.

Irakasleak , talde guztien lana komentatu eta gero, ahoz gora irakurriko ditu adostutako konklusioak.

Iragarkia aztertzeko gidoia

Produktu

mota:

Marka:

Norentzat: Emakumeak/neskatxak/ neska Gizonak/mutikoak, mutilak Biak berdin

Lagina: Norbanakoa: Emakumea/neskatxa/ neska Gizona/mutikoa/ mutila

Taldea: Emakumeak/neskatxak/ neska Gizonak/mutikoak, mutilak Misto

Familia bat: Neska-mutilekin Neska batekin Mutil batekin

Genero rol estereotipatuak transmititzen ditu?

Protagonisten irudia	Emakumearena/neskatoarena/neskatxarena	Gizonarena/mutikoarena/mutilarena
Gutxi gorabeherako adina		
Zer lanbide betetzen du?		
Aukeratu dagokiona	<input type="checkbox"/> Etxeko Andrea Ama bihozbera <input type="checkbox"/> Emakume objektua <input type="checkbox"/> Panpina edo manikia <input type="checkbox"/> Desio-objektua <input type="checkbox"/> Emakume biktima. Arrazoitu <input type="checkbox"/> Eme obsesioduna <input type="checkbox"/> Emakume zakarra <input type="checkbox"/> Emakume babeslea	<input type="checkbox"/> Etxeko gizona Aita bihozbera <input type="checkbox"/> Gizon objektua <input type="checkbox"/> Panpina edo manikia <input type="checkbox"/> Desio-objektua <input type="checkbox"/> Gizon biktima. Arrazoitu <input type="checkbox"/> Arra obsesioduna <input type="checkbox"/> Gizon zakarra <input type="checkbox"/> Gizon babeslea

Agertzen diren harremanak

Berdintasunezkoak

Dominatzaileak

Libreak

Maitasunezkoak

Lagunartekoak

Jeloskorrak

Jabetzakoak

Bortitzak

Sexu harreman:

Heterossexualak,

homossexualak,

Bisexualak

- Ondo lotzen zaio iragartzen den produktuari?.
- Balizko kontsumitzaileari edo erosleari zuzentzen zaio?.
- Biluztasuna eta sexualitatea erabiltzen ditu, baina ez dute zerikusirik produktuarekin.
- Erakusten du zer egiteko duten gizonezkoek eta emakumezkoek gure gizartean.
- Gizonezkoen eta emakumezkoen estereotipoak indartzen ditu, baita haiek gure gizartean dituzten harremanenak ere.
- Gizonezko eta emakumezkoen arteko harremanetan, legekotzat jotzen du/bultzatzen du biolentzia.
- Pertsona merkantzia edo objektu sexual bihurtzen du (gauza sexual bihurtzen du).

Taldeko konklusioak: Zuen ustez, publizitate honetan

Gelako konklusioak

Iragarki batzuk:

https://www.youtube.com/watch?v=nz_y2PkmFfo: Alfa Romeo

https://www.youtube.com/watch?v=k0_Ob3b9AdQ: Axe. El fin del mundo

<https://www.youtube.com/watch?v=aTOs-stqaEE>. Axe Hasta los ángeles caerán

<https://www.youtube.com/watch?v=v5LzEHNaA1E-> Desigual

<https://www.youtube.com/watch?v=pJ9myJudELs>: HS por una cabeza más feliz

<https://www.youtube.com/watch?v=sNBdU0PwWKU#t=26> Fish Sandwiches

Beste batzuen artean, honelakoak dira iragarkien sexismoaren adierazleak:

Emakumeak kanpoan uzten dituzten, aipatzen ez dituzten edo ezkutuan uzten dituzten hizkerak, edo emakumeak balorazio gutxiesgarriekin lotzen dituzten hizkerak erabiltzea

- 1- Genero bakoitzerako tradizionalki finkatu izan diren jarraibideak sendotzen dituzten ereduak aurkeztea.
- 2- Emakumeen gorputza objektu estetiko eta/edo sexuala eta pasiboa balitz bezala eta gizonen sexualitatearen eta gurarien zerbitzura balego bezala erabiltzea.
- 3- Emakumeak aurkeztea gizonenak baino gizarte-ospe eta botere txikiagoa duten lanbide, lan eta posizioetan, eta jakintza teknikoak eta /edo zientifikoak gizonenak baino ez dituztelako ideia indartzea
- 4- Emakumeen kontrako indarkeria justifikatzen dituzten portaerak edo jarrerak agertzea emakumeren gorputza salmentarako erreklamo izatea iragartzen den produktuarekin inolako harremanik eduki gabe

Ondoko helbidean agertzen diren iragarki guztietan hauetariko bat dute gutxienez. Guztiek emakumearen eredu sexu-objeto bezala irauarazten dute eta gehienetan indarkeria akuilatu egiten dute ...

LOS DIEZ ANUNCIOS MÁS MACHISTAS:

<http://www.unitedexplanations.org/2014/04/22/los-10-anuncios-mas-machistas-del-siglo-xxi/>

Irakasleentzako material osagarria

- Crecer entre pantallas sexistas

Fórmula nº 9: Publicidad: La imposición de modelos (Opel Vectra-Seat Arosa)

Fitxa nº 1: Analizando con gafas de género la publicidad

Maletín de educación para el profesorado:

<http://www.fundacionmujeres.es/maletincoeducacion/pdf/CUAD1vert.pdf>

- Iragarkiei buruzko datuak, sexismoa identifikatzeko gidak ...

Begira batzordea

2013. urtean aztertutako publizitate sexistako kasuei buruzko kexak
Helbide honetan aztertutako lau kexa ikus ditzakezu.

http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/begira/eu_def/adjuntos/begira.memoria.2013.eus.pdf

Instituto de la mujer de Andalucía

- a) Publizitatean sexismoa identifikatzeko dekalogoia
<http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/observatorio/web/observatorio/decalogo>
- b) Denuntziatutako kanpainak: *Que Crack; Cervezas Mahou; Me lo ha dicho Margarita*
<http://www.juntadeandalucia.es/institutodelamujer/observatorio/web/observatorio>

2.- Publizitateko sexismoari aurre egin

Behin tutoretza saioa egin da, arlo ezberdinetan jorra daitezken jarduera batzuk planteatuko dira.

PLASTIKA:

Taldeek edo geletan ateratako ondorioekin horma-irudiak egin txoko morean jartzeko

EUSKARA/LENGUA

Astean zehar publizitateari erreparatzea eskatuko zaie ikasleei. Martxoak 8an ,aurreko egunetan ikusitakoaren artean, gela bakoitzean iragarki bat aukeratuko dute kexa bat jartzeko: Gutunak, e-mailak, bideoak ...

Egindako kexa dagokion entepresetara bidali daiteke zuzenean edo eta Emakundek sortutako **Begira batzordeari**.

- Hemen Begira batzordeak sortutako dekalogoia eta formularioa ikus dezakezu:

Publizitate eta /edo komunikazio sexistari buruzko kexak jasotzeko galde sorta

http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/begira/eu_def/adjuntos/begira.formulario.eus.pdf

TEKNOLOGIA /INFORMATIKA ...

Iragarki ez sexista, kartela edo poster digitala sortu institutuko komunikazio hedabideetan argitaratzeko (webgunean, twitter...)

3.-Kanta baten iruzkina egin

Kantek eta musikak beste imaginario bat, berdintasunezko mundu bat, irudikatzen lagun dezakete: emakumeei buruz hitz egiten dituzten kantak; estereotipoak islatzen ez dituztenak; neska eta emakumeen berariazko proiektuak goraiatzeko dituztenak; ahalduntzea eta berdintasuna, errespetua, maitasunezko harreman eredu anitzak, sexu eta afektibitate aniztasuna bultzatzen dituztenak. Baita berdintasunaren alde egiteko mutilen ahalduntzea bultzatzen dituztenak ere.

Arlo ezberdinetan lan daitezken kanta batzuk proposatzen dira, nahi duzuen gaia eta ikasleen interesen arabera aukeratuak ahal izateko.

- Kanta entzun eta sentitu dutena komentatu.
- Zer transmititu nahi du kantak? Lortzen du? Zergatik.

👋😊 Ingelesa

- One woman: a song for a women. <http://song.unwomen.org>
"We Shall Shine!"

For women's rights and gender equality . Enjoy this musical celebration of women worldwide. Launched on [International Women's Day](#), 8 March 2013. From China to Costa Rica, from Mali to Malaysia acclaimed singers and musicians, women and men, have come together to spread a message of unity and solidarity: We are "One Woman".

- No freedom (Dido) <https://www.youtube.com/watch?v=iJWqRcdndw> (azpigituluak ingelesez)

No love without freedom, No love without freedom, No freedom without love

😊Euskara

- Zarena zarelako (Sugan) <https://www.youtube.com/watch?v=vFLOynWQds0>

*Nagusitu zaitetz, zeure lekua baduzu
Bermatu, lotu, bilatu, aurki ezazu*

- Gaur ez zaitut entzungo.
<https://www.youtube.com/watch?v=6yd1ha5AQhI>

Eta nahi zaitut nire alboan,

ze zure besoak ematen didate niri bero,
baina ez naiz inoiz sentitu preso..."

Hemen elkarrizketa eta beste kanta bat
<http://www.pikaramagazine.com/2011/01/olaia-aretxabaleta-un-tsunami-de-creatividad-segunda-parte/>

☺Gaztelania

- Amigas- (Ana Belén)

*Que transforman lo eterno en cotidiano
que conviven sin miedo con la muerte
que luchan cuerpo a cuerpo con la suerte hasta lograr
que coma dulcemente de sus manos.*

- Bella (Canteca de macao) <https://www.youtube.com/watch?v=RBYPkS7IXK4>

*Quien bien te quiere te hará te hace sufrir
Ay, yo no pienso de esa manera
Quien bien me quiere me quiere libre*

- Mujer (Amparo Otxoa)

*Mujer, Espiga abierta entre pañales
cadena de eslabones ancestrales
ovario fuerte, dí lo que vales
la vida empieza donde todos son iguales*

🇫🇷 Frantsesa

- Laisse tomber les filles- (france gall).

*Laisse tomber les filles
Laisse tomber les filles
Un jour c'est toi qu'on laissera
Laisse tomber les filles
Laisse tomber les filles
Un jour c'est toi qui pleureras*

Beste kanta batzuk:

Ikasturtean zehar lan egiteko helbide honetan zerrenda kolaboratiboa daukazue:

<http://open.spotify.com/user/playlist/6XWAWOxXggUiDsAAOILZH>

4.- Filme baten edo bideo clip baten analisia

- Bideoei buruz elkarrizketa bat bultzatzeko, hemen datu interesgarriak aurki daitezke

Adolescentesinviolenciadegenero.com/el-videoclip-como-coeducador-de-la-juventud

- Filmari buruzko analisia

KATMANDÚ UN ESPEJO EN EL CIELO. Itziar Bollain

Emakumeak, euren sentimenduak eta bizipenak protagonista dituen filme bat da. Istorio interkultural bat, hiru emakume hezkuntzarenganako maitasunak lotuak.

Laia, kataluniako irakasle gazte bat, 90. hamarkadan Katmanduko eskola lokal batera lan egitera mugitzen da, bertako kulturaren eta jendearen inguruko ezjakintasun handia duelarik. Bertan, muturreko pobreziaekin eta ume pobreenak kanpoan uzten dituen hezkuntza bat, adiskidetasun handi bat eta laguntzaren beharra aurkituko ditu.

Bere lagun irakasle gaztearen eskutik, Sharmila, Laia erabaki garrantzitsuak hartzera eta zenbait kontraesan onartzera behartua ikusiko du bere burua filmaren zehar.

Filmeak aztertzeko gidoia orokorra. (Aukeratzen den filmari moldatzeko adierazleak).

1-Pertsonaien irudia:

- Edertasun kanona
- Pertsonaien sexualizazioa
- Lanaren banaketa: eremu publikoa / etxea, lanbide-funtzioak, zaintze-funtzioak
- Pertsonaia biolentoak eta erakargarriak
- Pertsonaia berdinzaleak eta erakargarriak

2-Harremanak

- Emakumeen arteko harremana: Lehia edo adiskidetasuna
- Gizonen-arte harremanak: lankidetzak, lehia
- Amatasuna- aitatasuna funtsezko desira moduan

3-Pertsonaia estereotipatuak

4-Emakumeen ezaugarriak:

- Segurtasuna/ahalmena; Segurtasun falta...
- Bizi proiektu indibiduala
- Emozioen kontrola eta segurtasuna/ kontrol falta

5-Desirak

- Maitasuna, bizitzako elementu eksklusibo modura
- Desirak ezinbestekoak eta kontrolaezinak dira/ Desira erregulatuak
- Pertsonai biolentoenganako atrakzioa/ Pertsona berdinzaleenganako atrakzioa
- Protagonista desira-subjektuak/desira- objektua

6-Filmean agertzen diren pertsona erakargarrien baloreak

7-Aniztasuna azaltzen da, sexu-orientazioan eta genero-identitatean.

Galdera hauen inguruan, filme honetan lan daitezken beste gai batzuk:

1- Zer iruditzen zaizkizu hezkuntzaren inguruko bi ikuspegi desberdin hauek?

Laia: Nola irakatsi dezakezu hala pentsatuta. Zer da zuretzako irakastea? Niretzat aske izaten laguntzea baita (delako), aukeratzera, diren bezala izaten irakastea. Zuk zer irakatsiko diezu? Besterik gabe men egitera, eta hazten uzten ez dieten eta lotuak mantentzen dituzten ohitura ergelak ikastera?

Sharmila: Ez laia, elkar zaintzen irakatsiko diet, bere nagusiak errespetatzen, nire komunitateak bakoitza bere lekuan kokatzen du, egia da, baina bere kideetako bakoitza zaintzen du ere, adibidez bezala nire ama alarguna da eta ez du zainduko dute seme alabarik, baina ez zaio inoiz falta norbaiten agurra edo 'otordu, bazkari, jatekoa', baso bat ur edo entzungo duen norbait. Eta horiek nire ohiturak dira ere, eta errespetatu egiten ditut.

2- Zer ikasten du Laiak Sharmila eta Kushilarengandik?

3- Zergatik ez da gai Laiaren senarra berarekin gelditzeko?

Laiak atsekabez hitzartutako ezkontza bat eraman zuen aurrera bere egoera legalizatu ahal izateko, baina ez zuen ulertzen gizon honen arrazoiak berari laguntzeko (umeak laguntzeko). Denborarekin, Laia bere senarraz maitemintzen da, baina orduan honek bere proiektua alboratzea eta berarekin joatea eskatzen dio.

Zergatik aldaketa hori? Zergatik ezin da Laiarekin gelditu eta bere proiektuan lagundu? Bat zatoz Laiak hartutako erabakiarekin?.

4- Sharmilaren erabakia

Sharmilak ama izan nahi du, baina neskato bat izango duela enteratzen denean, umerik ez izatea erabakitzen du. Zeintzuk dira bere arrazoiak? Ulertzen dituzu?.

5- Zein balore mugiarazten dituzte protagonisten portaerek?.

Laia:

Sharmila:

Kushila:

Beste filma batzuk

Criadas y señoras, Tate Taylor-ena

Las flores de la guerra, Zhang Yimou-rena

De tu ventana a la mía,-Paula Ortiz-ena

Las 13 rosas, Emilio Martínez-Lázaro-rena

Sylvia, Christine Jeffs-ena

Las horas, Stephen Daldry-ena

Visión. La historia de Hildegard Von Bingen, Margarethe von Trotta-rena

Ni Dios, ni patrón, ni marido, Laura Mañá-rena

Ágora, Alejandro Amenábar-rena

Las maestras de la república, Pilar Pérez Solano-rena

Verónica Guerin, Joel Schumacher

La bicicleta verde, Haifaa Al-Mansour-ena

Pan y rosas, Ken Loach-ena

Clara Campoamor, la mujer olvidada, Laura Mañá-rena

Frida, naturaleza viva, Paul Leduc-ena

Rosa Luxemburgo, Margarethe von Trotta-rena

III- FAMILIAK ETA GIZA ERAGILEAK

1- Ikastetxeko proposamena eta egindako lanak gurasoei helarazi

Tutoreek, jarduerak egiten hasi baino lehen, bere taldeko ikasleen familiei proposamenaren berri eman ahal diete, e-mailen bidez edo gutun baten bidez, euren ekarpenak egiteko eta nahi duten ekintzetan parte hartzeko aukera emanaz.

2- Formazio saioa familiekin

Ikasleekin jorratuko den proposamena helaraztearekin batera, euren seme-alabek geletan egingo duten gogoeta bera egitea proposatu ahal zaie familiei.

Zer ikasten ari dira zuen seme-alabek publizitatean, ikusten dituzten bideotan?

- Publizitateari buruz aurreko ataletan proposatzen diren bi bideo hauek erabil daitezke.

Telebistan emandako saioa publizitateari buruz

<http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/airean/bideoak/soa/1513514/bideoa-iraqarki-sexistak-eta-sexismoa-publizitatean>

Ikasle kanadiarrek egindako bideoa

<http://www.argia.eus/multimedia/bideoa/sexismoairagarkietan?ids=multimedia/bideoa/sexismoa-iragarkietan>.

- Bideo klipari buruz Bigaren Hezkuntzako ikasleentzat proposatutako artikuluan datu oso interesgarriak familiekin lantzeko. Artikuluan linkatuta dauden bideoak, ikasleekin erabilitakoak edo beste batzuk erabil daitezke. (Lehen Hezkuntzarako proposatzen duguna ere os aproposa da familiekin gai asko lantzeko)

Adolescentesinviolenciadegenero.com/el-videoclip-como-coeducador-de-la-juventud

- Forum-a: KATMANDÚ UN ESPEJO EN EL CIELO. Ikasleekin erabilitako gidoia erabiliz, seme alabekin batera etxean ikusten dituzten filmari buruzko elkarrizketa kritikoak bultzatzeko ereduia izan daiteke.

3.- Herriko udaletxeetako proposamenak Hezkuntza Komunitateari helarazi

Hezkidetzaren batzordeak ikastetxe barruan eta gurasoen artean Martxoak 8a ospatzeko herrian burutu nahi dituzten ekintzei buruzko informazioa helaraztea, parte hartzeari animatuz.